




# EUROPEAN UNIVERSITIES

Erasmus+



Guztiak elkartuta...

**305 200**

IKASLE

**> 750 000**

ALUMNI

**57 725**

LANGILE, 25,000 KIDE  
AKADEMIKO BARNE  
HARTUTA

**> 9 000**

BATERAKO  
ARGITALPEN

**> 200**

BATERAKO PROIEKTU EUOPAR

**GURE  
IKUSPEGIA  
ETORKIZUNERAKO**

## ENLIGHT – ENLIGHT

European university Network  
to promote equitable quality  
of Life, sustainability &  
Global engagement through  
Higher education  
Transformation



## NOR GARA?

### 9 unibertsitate aitzindari

Universiteit Gent (Ghanteko Unibertsitatea, Belgika)

Université de Bordeaux (Bordeleko Unibertsitatea, Frantzia)

Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea  
(Espainia)

Univerzita Komenského v Bratislave  
(Comenius Unibertsitatea Bratislava, Eslovakia)

Ollscoil na hÉireann, Gaillimh / National University of Ireland,  
Galway (Irlandako Unibertsitate Nazionala, Galway)

Georg-August-Universität Göttingen  
(Gotingako Unibertsitatea, Alemania)

## GURE IKUSPEGIA ETORKIZUNERAKO

ENLIGHTek **funtssezko eraldaketa** bat sustatu nahi du goi mailako hezkuntzan, gaur egun ikaskuntzan, ikerketan eta lankidetzan dauden zailtasunak gainditu ahal izateko. Lan egungo dugu gure unibertsitateko irakaskuntza eraldatzeko, erronketan oinarritutako eta ikerketara orientatutako ikaskuntzaren bidez, gure ikasleek ahalduz lor dezaten, maila globalean konprometitutako herritar europarrak izango diren neurrian. Planetako erronkei aurre egiteko modua eraldatzen saiatuko gara, hezkuntza eta ikerkuntza eredu eta metodologia berriak garatzen, hiriek eta eskualdeek jasangarritasunean dituzten zailtasun konplexuetara egokituta, eta bereziki bost arlo hauei erreparatzen diegu:

- Osasuna eta ongizatea
- Eraldaketa digitala

Rijksuniversiteit Groningen  
(Groningako Unibertsitatea, Herbehereak)

Tartu Ülikool (Tartuko Unibertsitatea, Estonia)

Uppsala universitet (Uppsala Unibertsitatea, Suedia)

### 23 Erakunde elkartuta

9

Hiri

4

GKE

4

Fundazio

2

Ikerkuntza

2

Eskualdeko  
governu

2

Enpresa

- Klima aldaketa
- Energia eta ekonomia zirkularra
- Ekitatea

Gure helburua lortzeko, ENLIGHTek **ikaskuntza eta irakaskuntza prozesuak** eraldatu nahi ditu:

- Nazioarteko ikaskuntza, **nazioarteko ikasbide malguen** bidez, non konbinatu egiten diren esperientzia laburrak eta luzeak, fisikoak eta birtualak hainbat herrialdetan.
- **Erronketan oinarritutako eta ikerketara orientatutako ikaskuntza**, eragile sozioekonomikoei eragiten dieten arazo irekiak eta errealak lantzen dituen (living labs, ikaskuntza kooperatiboa)
- **Diziplinartekotasuna**, diziplina askotako ikuspuntuak eta askotariko gizarte ikuspegiak

uztartuta

- **Moldaeraztasuna**, ezagutza zientifikoa eta zeharkako gaitasunak elkartuta, hala nola kulturarteko kontzientzia, lidergo inklusiboa eta eleaniztasuna.

2030erako ENLIGHTek ezarrita edukiko ditu **gaitasunen esparru berri bat eta Europako Unibertsitate sistema integratu bat**, Europako Goi Mailako Hezkuntzan jarraitu beharreko eredu gisa. ENLIGHT sortzen ari diren erronketara egokituko da, eta bere ekintzak ikerketa eta berrikuntza

ekimen berritzailetara daramaten arlo berrietara transferituko ditu.

**Baterako ikaskuntza programa malguak** hedatuko ditugu ENLIGHT sarean eta ENLIGHT ikasle guztiei esperientzia batez gozatzeko eta nazioarteko gaitasunak eskuratzeko aukera eskainiko diegu. ENLIGHTen programa laburren, baterako tituluen, doktorego sarean eta irakasleen bidez, milaka ikasle gradudun heziko ditugu, aldaketa eragile moldagarriak izan daitezten. ENLIGHTeko egresatuek Europako balioak, erronketan oinarritutako ikuspegiak eta ikerketa emaitza bikainak zabalduko dituzte, kontinentean eta mundu osoan.

## GURE IKUSPEGIA PRAKTIKAN JARRITA

### Entregagarri gakoak / jarduerak

- Kalitatezko kultura bat garatzea, **kalitatezko planteamendu bateratu** baten bidez, ENLIGHT sare osoaren ikasketa aldiak automatikoki onartzea ahalbidetuko duena, Europako Unibertsitate sistemaren oinarri gisa;
- **Baterako sorkuntza metodologia bat** garatzea, unibertsitate eta tokiko eragileekin batera, ikasleek zehaztutako erronkei aurre egiteko beharko dituzten **ezagutza gaitasunak eta trebetasunak** definitzeko;
- **Ikasleen zeharkako gaitasunak eta konpromiso globala** sustatzea, eta egite jakite bat sortzea, hizkuntza gaitasunak, dibertsitatearen kontzientzia, lidergoa eta enpresa gaitasunak irakaskuntza programetan integratzeko;
- **Mugikortasun inklusibo, arin eta jasangarri baten esparru estrukturala eta teknikoa** garatzea, eta **ikaskuntza malgu** baterako tresnak ematea;
- Ereduak garatzea, **elkarrizketa estruktural bat abiatzeko tokiko, Europako eta munduko eragileekin**;
- **Metodologia integral bat garatzea** ENLIGHTen gaitasunen esparruak ikasleengan eta haien ingurune sozioekonomikoan duen **eragina neurtzeko**.

### Gure aliantzak unibertsitateak eraldako ditu

- ENLIGHTek erronka planetarioei aurre egiteko modua aldatuko du, ikaskuntza eta ikerketa metodologia berriak garatuta. ENLIGHTek hezkuntza aldatuko du, ikasleei beharrezkoak diren ezagutzak, trebetasunak eta berritzeko ahalmena emateko; horrela, gai izango dira gizarte eraldaketei aurre egiteko eta etorkizuneko hiri eta eskualdeei forma emateko, eta planetarekin konprometitu dauden herritar europarrak izango dira.
- ENLIGHTek **ahalmena eta ezagutza areagotuko ditu, eraldaketak bideratzeko eta gure erantzunak indartzeko**, zailtasun planetario konplexuen aurrean, askotariko ingurune sozioekonomikoetan sortzen doazen neurrian. Adituak, baliabideak eta Europan egindako ikerketa jarduera eta esperientzia berrienak elkartuta, ikertzeko eta berritzeko nazioarteko gaitasuna mobilizatuko da, tokian tokiko arazoak konpontzeko. **Maila globalean pentsatu, eta maila lokalean jardungo dugu**.
- Ikerketa, hezkuntza eta berrikuntza zabaltzea eta sinergiak sortzea. ENLIGHTek pixkanaka **irakaskuntza, ikaskuntza eta lankidetzaren hesi guztiak ezabatuko** ditu, ENLIGHT komunitatearen maila guztietan. Aliantzak **Europako Unibertsitate sistema integratu bat** ezarriko du, egiturak lotutako dituen, eta horren bidez kalitatea, nazioarteko irismena, konpromiso globala, talentuaren erakarpina eta ikerketa azpiegitura handietarako inbertsioak bermatuko dira.
- ENLIGHTek **kalitate eredu komun eta autogidatu bat** garatuko du, ENLIGHT unibertsitate guztietan egindako ikasketak automatikoki aitortzea ahalbidetuko duena. ENLIGHTen ezarritako gaitasunen esparruarekin batera, kalitatearen kultura horrek **neurria diseinatutako ikaskuntza esperientziak** konbinatzeko eta metatzeko aukera emango die **ikasleei**.

#EuropeanUniversities

[https://ec.europa.eu/education/education-in-the-eu/european-education-area/european-universities-initiative\\_en](https://ec.europa.eu/education/education-in-the-eu/european-education-area/european-universities-initiative_en)

> <https://enlight-eu.org>

 enlight-europeanuniversity

 @enlight\_eu

 ENLIGHT EU